

PRENTSA OHARRA – NOTA DE PRENSA

***MusiKandinsky* musika eta kolore tailerra, ikasteko zailtasunak dituztenen gazteentzat**

Urtarrilaren 15ean eta 22an —biak ostegun—, ***MusiKandinsky*** tailerra hartuko du Guggenheim Bilbao Museoa, *Zuk zeuk egin!* sormen-saioen barruan. Bi saioko tailerra izango da, eta musika eta kolorea izango ditu gai. Igor Imaz eta Carles Pérez, musikari eta musika-terapia emaileak, izango dira ikasteko zailtasunak zein behar bereziak dituzten gazteentzako tailer honen irakasleak; halaber, artea eta musikaren uztartetan interesa dutenek ere parte har dezakete.

Partaideek ez dute musika-ezagueren beharrik: *Gure garaiko artea* erakusketan ikusgai dauden Vasily Kandinskyren lan batzuk behatu ondoren, hainbat musika-lan inprobisatzen eta jotzen gozatuko dute.

Kandinsky eta Arnold Schoenberg musikagilea lagun minak izan ziren, eta batak bestearen lana eragin zuen. Sortzaile aitzindari horiek hartuko dituzte erreferentziatzat gazteek, musikaren eta artegintzaren arteko harreman emankorra ikertzeko eta esperimentatzeko.

***MusiKandinsky* musika eta kolore tailerra**

Hartzaileak: 14 urtetik gorakoak  
Data: urtarrilaren 15a eta 22a  
Ordua eta lekua: 18:00–19:30, hezkuntza guner berria  
Prezioa: 24 € publiko orokorra eta 20 € Museoaren Lagunak (bi saioak barne).  
Sarrerak: [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) webgunean

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 8an

**Taller de música y color *MusiKandinsky* dirigido a jóvenes con dificultades de aprendizaje**

El Museo Guggenheim Bilbao acogerá los próximos jueves 15 y 22 de enero el taller ***MusiKandinsky*** dentro del ciclo de sesiones creativas *¡Hazlo tú mismo!*. Este taller de dos sesiones sobre música y color, impartido por los músicos y músico-terapeutas Igor Imaz y Carles Pérez, está dirigido principalmente a jóvenes con dificultades de aprendizaje o necesidades especiales en su proceso educativo; y también a aquellos interesados en la música en el arte.

Los participantes, que no necesitan conocimientos musicales, disfrutarán tocando e improvisando distintas composiciones musicales a partir de la contemplación de algunas obras del artista Vasily Kandinsky que se muestran actualmente en la exposición *El arte de nuestro tiempo*.

Kandinsky y el compositor Arnold Schoenberg fueron grandes amigos y sus respectivas investigaciones influyeron mutuamente en sus trabajos. Tomando como referencia a estos creadores pioneros, los jóvenes experimentarán la fructífera relación entre la música y la creación artística.

**Taller de música y color *MusiKandinsky***

Destinatarios: a partir de 14 años  
Fechas: 15 y 22 de enero  
Hora y lugar: de 18:00 a 19:30 h, nuevo espacio educativo  
Precio: 24 € público general y 20 € Amigos del Museo (se incluyen las dos sesiones).  
Entradas en la web [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Bilbao, 8 de enero de 2015